



Prensa-oharra

“Kutxabankek eta INNOLAB Bilbaok indarrak batu dituzte konputazio kuantikoa euskal finantza-sektorean aplikatzeko”

Kutxabank eta INNOLAB Bilbaoren artean lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

Kutxabankek eta INNOLAB Bilbaok lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, konputazio kuantikoaren inguruan berrikuntza irekiko proiektu bat garatzeko; helburua teknologia horren erabilera finantza-erakundearen kasu batean baliozkotzea da.

Ekitaldian, hitzarmenaren sinatzaileak egon dira: Koldo Etxeberria, Kutxabankek Sistema eta Prozesuetako zuzendaria, eta Iraia Monteagudo, INNOLAB Bilbaoko Bulego Teknikoko zuzendaria.

Hitzarmen hau INNOLABen 2019-2020 urteetarako ekintza-planaren ardatz nagusietako batean kokatzen da, hots, konputazio kuantikoan, eta teknologia horren hurbilketa euskal enpresa-ekosistemara. Horren erakusgarri dira "Konputazio kuantikoa, enpresa-iraultza berria" hitzaldia eta *Bilbao Quantum Computing Hackathon*, biak INNOLABek tokiko eragile adituekin elkarlanean antolatutako ekitaldiak, Kutxabankek zeregin aktiboa izan duela horietan.

Hitzarmen hau sinatzea apustu argia da, eta finantza-erakundea teknologiaren abangoardian jartzen du, eta finantza-erakundea aurreratu eta berritzaile baten bidez bere jardueraren eragin positiboa lurraldeko ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-esparruetan maximizatzeko duen misio edo eginkizunari jarraitzen dio.

Proiektu honek, halaber, Kutxabankek berrikuntzaren arloan egun duen kokapena indartzen du, BBK Fundazioak bazkide gisa INNOLABen duen parte-hartzearen bidez.

INNOLAB Bilbao (www.ilb.eus) berrikuntza irekiko plataforma da, non talentuak, teknologiak eta industriak bat egiten duten enpresa-erronkei irtenbide digital berriak emateko, euskal gizartearen berrikuntza teknologikoa bultzatuz, baita enpresen eta industriaren digitalizazio-jarduerak ere.

2016an sortua, irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatu bat da, Bilboko Udalak bultzatutako lankidetzaren publiko-pribatu baten emaitza, eta hainbat eremutako bazkideak batu zaizkio: BBK, IBM, Iberdrola, Mondragon Korporazioa, IMQ Taldea, Deustuko Unibertsitatea, BCAM (Basque Center for Applied Mathematics) eta El Correo.

